

ZER JATEN DUGU?

Elikaduraren arabera, animaliak 3 taldetan banatu ditzakegu:

Belarjaleak



Animalia hauek **bakarrik landareak** jaten dituzte: belarra, hostoak, fruituak, sustraiak, algak, fitoplaktona... Batzuek batez ere hostoak jaten dituzte eta **hostojaleak** deitzen diegu (jirafa, hartz panda, koala...) Beste batzuek fruituak jaten dituzte gehienbat: **fruitajaleak** (oraguntana, tukana, tapirra...) Planetan belarjale gehiago daude haragijale baino.

Haragijaleak

Animalia hauek **beste animalia batzuk** jaten dituzte. Haragijaleen artean 4 mota daude: **Harrapariak** (beste animaliak harrapatu eta hil egiten dituztenak: lehoia, puma, otsoa...), **sarraskijaleak** (hilda dauden animaliak jaten dituztenak: putrea, hiena, kondorra), **insektujaleak** (insektuak jaten dituzte, ad: anfibioak) eta **arrainjaleak** (arrain asko eta hegazti batzuk dira arrainjaleak)



Orojaleak

Animalia orojaleek **landareak eta beste animalia batzuk** jaten dituzte. Ez dute denetarik jaten, baina beren digestio-aparatua edozein elikagai aprobetxatzeko gai da. Animalia orojaleak dira: txerria, hartzak (ez denak: hartz panda belarjalea da eta hartz zuria haragijalea), azeria, trikua, txakurra, urtxintxa, ostruka, kaioa, oiloa, lurreko dordokak eta gizakiak.



hostoa: hoja (de una planta)

harrapakaria: depredador

kaioa: gaviota

sarraskijalea: carroñero

sustraia: raíz

elikagai: alimento

ostruka: avestruz

fitoplakton: plácton de origen vegetal

1) Aukeratu animalia talde bakoitzak jaten duena

- Animalia haragijaleek
- Animalia orojaleek
- Animalia belarjaleek

2) Lotu gezien bidez

HARRAPARIAK

Insektuak jaten dituzte

HOSTOJALEAK

Fruituak jaten dituzte

SARRASKIJALEAK

Arrainak jaten dituzte

INSEKTUJALEAK

Beste animalia batzuk harrapatu
eta hil egiten dituzte

ARRAINJALEAK

Hilda dauden animaliak dituzte

FRUITAJALEAK

Hostoak jaten dituzte

3) Begiratu animalia hauek. Zer da bakoitza: belarjalea, haragijalea edo orojalea?

azeria



orangutana



zaldia



marrazoa



arrabioa



gepardoa



kondorra



hartza



jirafa



txerria



bisontea



eskorpioia

